

I. XEDAPEN OROKORRAK

ESTATUKO BURUZAGITZA

10857 *Hutsen zuzenketa, honako honena: 11/2015 Errege Lege Dekretua, urriaren 2koa, kutxazain automatikoetan dirua ateratzeagatiko komisioak arautzekoa.*

Hutsa aurkitu da Kutxazain automatikoetan dirua ateratzeagatiko komisioak arautzeko urriaren 2ko 11/2015 Errege Lege Dekretuan, zeina *Estatuko Aldizkari Ofizialaren* 2015eko urriaren 3ko alean, 237. zenbakian, argitaratu baitzen; honen bidez zuzentzen da:

2. orrialdean, II. zenbakiaren azkenengo lerroaldearen lehenengo lerroan, hau dioen lekuan: «Eredu berria honako errege lege-dekretua *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratzen den egunaren hurrengoan jarriko da indarrean,...», hau esan behar du: «Eredu berria honako errege lege-dekretua *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratzen den egunean jarriko da indarrean,...»